AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2420

628/2017 EBAZPENA, apirilaren 24koa, Donostialdea ESIko zuzendari gerentearena. Honen bidez, Olatz Olano Arancibia andrea Zerbitzu Orokorretako zuzendariorde izendatu da, izendapen aske bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdea ESIan.

415/2017 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdea ESIan Zerbitzu Orokorretako zuzendariorde lanpostu bat izendapen aske bidez betetzeko deialdia onartu zen.

Balorazio batzordeak aurkeztutako eskabideak baloratu ditu, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, eta Olatz Olano Arancibia andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, zera erabaki da: pertsona hori izendatzea, izendapen aske bidez, Zerbitzu Orokorretako zuzendariorde, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdea ESIan.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat, zera

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Olatz Olano Arancibia andrea izendatzea Zerbitzu Orokorretako zuzendariorde, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdea ESIan.

Bigarrena.– Izendapen honek 2017ko maiatzaren 10etik aurrera izango ditu ekonomia- eta administrazio-ondorioak.

Hirugarrena.– Izendapenak egin dituen organoak diskrezionalki kargugabetu ditzake izendapen askeko sistemaren bidez dagozkion lanpostuetan izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak edo lanpostutik mugiarazteak zera eragingo du: langilea beste postu funtzional batera lekualdatuko dela, baina edonola ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko diela. Hain zuzen, antzeko ezaugarriak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik betetzen zuen lanpostuak zeuzkan ezaugarri berberekin antolakuntzari eta lurraldetasunari dagokienez. Atxikipen horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta Osakidetzak berak ezarritako prozedurari jarraituz gauzatuko da. Lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.– Ebazpen hau interesdunari eta Donostialdea ESIari jakinaraziko zaie.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen honi dagokion iragarkia EHAAn argitaratu eta hur«»engo egunetik aurrera.

Donostia, 2017ko apirilaren 24a.

Donostialdea ESIko zuzendari gerentea

(1052/2015 Ebazpena, irailaren 3koa)

Pertsonaleko zuzendaria,
ESTHER LITAGO SOLA.